



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2013KO IRAILAREN SEKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2013.09.05.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

### **Zinegotziak:**

Koldobike Gorostiza Uriguen and.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Ander Almandotz Indakoetxea jn (kanpoan dago).

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa.
- 3.-Baztango Udaleko eta Elizondoko Alkateei bidalitako mehatxuen salaketa.
- 4.-Berako Udala: "puntu lila" mozioa.
- 5.-Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2013ko abuztuaren 9an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA.**

Ikusirik Udaleko Arkitektoen txostena Arantzako Arau Subsidiarioen barne dauden eraikinei buruzko ordenantzaren 39. artikulua aldatzeko.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru legearen 74.1 a) artikulua ezarritakoari jarraituz, Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Arau Subsidiarioko ordenantzaren 39. artikulua aldaketa hasiera batez onartzea.

2) Espedientea jendaurrean jartzea hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitez.

### **3.-BAZTANGO UDALEKO ETA ELIZONDOKO ALKATEEI BIDALITAKO MEHATXUEN SALAKETA.**

Ikusirik Baztango alkatea den Garbiñe Elizegi Narbartek eta Elizondoko zinpeko alkatea den Mikel Sobrino Urrutiak Baztandarren Biltzarra egunean eta Elizondoko bestetako Santiago egunean Balleko etxean ikurriña jartzeagataik eta presoen aldeko ikurrak paratzea baimentzeagatik Agrupacion de Nacionalistas Navarros elkartetik jasotako bi heriotz mehatxuei buruzko mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Heriotza mehatxua jaso duten Garbiñe Elizegi Narbarte Baztango alkateari eta Mikel Sobrino Urrutia Elizondoko alkateari elkartasunik sentituena agertzea.

2) Heriotza mehatxu hauek errefusatzea eta talde faxista horien jarduera arbuiatzea.

3) UPNek eta Estatuaren Nafarroako ordezkariak Ikurriñaren aurka eta euskal ikur nazionalen kontra Nafarroan daramaten politika salatzea.

4) Ikurriña galerazteko eta Espainiako bandera jarrarazteko egin dituzten salbuespen legeak errefusatzea.

5) Baztango herri guztietan, herriko batzarreen adostasunarekin herriko toki aitizndarrietan Ikurriña eta Euskal Herriko gainerako ikur nazionalak jartzea.

### **4.-BERAKO UDALA: "PUNTU LILA" MOZIOA.**

Irakurri da Berako Udalak bidalitako idatzia. Gai hau aurreko pleno batean eztabaidatua eta onartua izan zen.

### **5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 59tik 60. arte).

### **6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.

